

31.6. DEKLINABIDEA

Deklinabidearen gainean prestatu dugun azpi-atal honetan paradigmak eta eurotan agertzen diren kasu marka batzuen gaineko esaldi eredu batzuk baino ez ditugu aurkeztuko. Paradigmak aurkezteko bereiz emango ditugu bizidunen eta bizigabeen taulak.

31.6.1. Bizidunen deklinabidea

Bizidunen deklinabidearen paradigmak osatzeko bokal guztien arabera amaitzen diren berbak eta kontsonantez amaituko berba bat aukeratu ditugu.

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
nor	alábie	alábak	semíe	semíek
nork	alábiek	alábak	semíek	semíek
nori	alábiai	alábei	semíai	semíei
noren	alábiena	alábena	semíena	semíena
nogaz	alábias	alábakin	semías	semíekin
norendako	alábiendako	alábendako	semíendako	semíendako
nogaitik	alábiaittik	alábakaittik	semíaittik	semíakaittik
nogana	alábiana	alábekana	semíana	semíekana

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
nor	idíxe	idíxek	astúe	astúek
nork	idíxek	idíxek	astúek	astúek
nori	idíxai	idíxei	astúai	astúei
noren	idíxena	idíxena	astúena	astúena
nogaz	idíxas	idíxekin	astúas	astúekin
norendako	idíxendako	idíxendako	astúendeko	astúendako
nogaitik	idíxaittik	idíxekaittik	astúaittik	astúakaittik
nogana	idíxana	idíxekana	astúana	astúekana

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
nor	katúe	katúek	lagúne	lagúnek
nork	katúek	katúek	lagúnek	lagúnek
nori	katúai	katúei	lagúnai	lagúnei
noren	katúena	katúena	lagúnena	lagúnena
nogaz	katúas	katúekin	lagúnas	lagúnekin
norendako	katúendako	katúendako	lagúnendako	lagúnendako
nogaitik	katúaittik	katúekaittik	lagúnaittik	lagúnekaittik
nogana	katúana	katúekana	lagúnana	lagúnekana

Instrumentala

Instrumentala gutxitan eta oso funtzio zehatzetan erabiltzen da, jarraian erabileraren adibide batzuk ikus daitezke:

«Ori itten da sagarra eskus dana apurtze san» - (Hori egiten da sagarra eskuz dena apurtzen zen)

«Amenguek txikitxuauek die, bai ales eta bai lekas be» - (Hemengoak txikitxoagoak dira, bai alez eta bai lekaz ere)

«Bai bañe, nik bersuek danak ikaste nittun burus» - (Bai baina, nik ber-soak denak ikasten nituen buruz)

«Da olantxik kanpantorrie jentes beteta» - (Eta holantxe kanpandorrea jendez beteta)

Partitiboa

Tauletan partitibo kasu marka agertzen ez den arren, hona hemen kasu honen erabilera irudikatzekeo esaldi eredu batzuk:

- «Kotxeik eseuen da» - (Kotxerik ez zegoen eta)
- «Anketatik txarto bada bedxe, estau esneik, e?» (Hanketatik txarto bada-go bebia, ez dago esnerik, e?)
- «Nik beste mairik estot esautu amen etxien, auxe beti» (Nik beste mahairik ez dut ezagutu hemen etxean, bauxe beti)
- «Nik estekat eskupetaik, gurien esta on eskupetaik sekule be, sekule be, nik estot afesiñoik euki» (Nik ez daukat eskopetarik, gurean ez da egon eskopetarik sekula ere, sekula ere, nik ez dut zaletasunik eduki)

Aurreko erabilera honezaz ostera partitibo kasu markak ondoko erabilera ere badauka:

- «Urte barri egunien, etxeik etxe ibillte san» (Urte barri egunean, etxerik etxe ibiltzen zen)
- «Barberue pai baserriik baserri ibillte sienak, astien bein ebaitte ben bixerra ta jute sien baserrire, astien bein» (Bizarginak bai baserririk baserri ibiltzen zirenak, astean behin ebakitzen zuten bizarra eta joaten ziren baserrira, astean behin)
- «Etorri die atetik ate» - (Etorri dira aterik ate)

Prolatiboa

Prolatiboaren kasu marka paradigmetak kanpo utzi dugun arren, beroreen erabileraren gainean ondoko esaldi ereduak ikus daitezke:

- «Alkatetzako artu dabe» - (Alkatetzat hartu dute)
- «Nik orrek ipuinnek danok ipuintzat artu ittut beti» (Nik horiek ipuinak denok ipuintzat hartu ditut beti)
- «Berak ori esaban ontzat artzen» (Berak hori ez zuen ontzat hartzen)
- «Ori mosolotzat artu dabe» - (Hori mozolotzat hartu dute)
- «Oin enas akortan, esate ben gure aurreko maistriek, olao anillo bat erabilte bala, da euskeras eitten deskuidetan sanai, a emotozala kastigutzet, guk estou olako, olakoik es» (Orain ez naiz gomutatzen,

esaten zuten gure aurreko maistrak, bolako eraztun bat erabiltzen zuela, eta euskaraz egiten deskuidatzen zenari, hura ematen ziola zigortzat, guk ez dugu bolako, bolakorik ez)

31.6.2. Bizigabeen deklinabidea

Bizidunen deklinabiderako egin dugun moduan, bizigabeen deklinabidearen paradigmak osatzeko bokal guztien arabera amaitzen diren berbak eta kontsonantez amaituko berba bat aukeratu ditugu.

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
non	tabérnan	tabérnetan	etxíen	etxíetan
nora	tabérnara	tabérnetara	etxéra	etxíetara
nondik	tabérnatik	tabérnetatik	etxétik	etxíetatik
nongoa	tabérnakue	tabérnetakue	etxékue	etxíetakue
noruntz	tabérnaruntz	tabérnetaruntz	etxéruntz	etxíetaruntz
noraino	tabérnaraño	tabérnetaraño	etxéraño	etxíetaraño

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
non	erríxen	erríxetan	basúen	basúetan
nora	erríre	erríxetara	basóra	basúetara
nondik	erríttik	erríxetatik	basótik	basúetatik
nongoa	erríkue	erríxetakue	basókue	basúetakue
noruntz	erríruntz	erríxetaruntz	basóruntz	basúetaruntz
noraino	erríraño	erríxetaraño	basóraño	basúetaraño

	Singularra	Plurala	Singularra	Plurala
non	eskúen	eskúetan	lurríen	lúrretan
nora	eskúre	eskúetara	lurréra	lúrretara
nondik	eskútik	eskúetatik	lurrétik	lúrretatik
nongoa	eskúkue	eskúetakue	lurrékue	lúrretakue
noruntz	eskúruntz	eskúetaruntz	lurréruntz	lúrretaruntz
noraino	eskúraño	eskúetaraño	lurréraño	lúrretaraño

31. Izen Morfologia

Alatiboaren «r» sarritan galtzen da: *ureta* (uretara), *berta* (bertara), *kamara* (kamarara), *Markiña* (Markinara), *bata* (batera), *atza* (atzera), e.a.

Alatibo direktiboaren morfema «rutz» ere izaten da: *gorutz*, *barrurutz*, *kanporutz*, *lurrerutz*, e.a.

Alatibo bukatuzkoaren morfema «raño» ere izaten da: *tellaturaño*, *ateraño*, *ainbesteraño*, *baserriraño*, *tabernaraño*, e.a.